



Agustin Arrieta Ortizberea.

Andoni CANELLADA | FOKU

## Hasiberrientzako eztabaida filosofikoa dakar Agustin Arrieta Ortizberek

Nagore BELASTEGI | DONOSTIA

Filosofia oinarrian duen liburua da Agustin Arrieta Ortizberek "Gaueko eztabaidak" (Elkar). Egileak gai horren inguruan idatzi duen seigarren lana da, baina oraingoan bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleak izan ditu gogoan.

Aurkezpenean azaldu zuenez, ez da behar filosofian jantzia izatea planteatzen diren gaiak ulertzeko. Izan ere, lau pertsonaiaren bidez, gai bakoitzeko ikuspuntu bat aurkezten du, eta eztabaidaren bidez egiten du salto batetik bestera. Unai, Josu, Ane eta Miren hiru gautan elkartzen dira filosofiari buruz hitz egiteko.

Lehen egunean zientzia, erlijioa eta egia dituzte hizpide; bigarrenean, artea, generoa, maitasuna eta balioa; eta hirugarrenean, zoriontasuna. Filosofian askotan jorratu izan diren gaiak guztiak. Elkarrizketa ere filosofian sarri erabili izan den baliabidea da: Platon, Hume, Zizeron, Galileo...

«Klasean gazteen artean eztabaida sortzen zuten gaiak detektatu nituen», argitu zuen Arrietak, zeina EHUn Filosofia irakaslea ere baden. Horiek liburu honetan biltzen ahalegindu da eta eztabaidari helduz argudioak azaltzeko moduak paperean islatzen.

Era berean, eztabaidetan empatia dagoela uste du, pertso-

naiak, gehienetan, besteen pentsamoldea ulertzen saiatzen baitira. «Hasieran ia ez zegoen eztabaida, eta pertsonaiak oso prototipikoak ziren. Ia-ia nire etsaiak ziren, eta amaieran kariñoa hartu diet», azaldu zuen testua idazten hasi zenetik argitaratu arte egindako aldaketei erreferentzia eginez.

Lau pertsonaiak lau errepede izango balira bezala irudikatzen ditu: «Batuetan paralelo doaz, beste batuetan gurutzatu egiten dira, eta gutxi batuetan bat dira». Terminologia teknikorik erabiltzen ez duenez, publiko orokorrari eta, batez ere, gazteari iristea nahi luke; alegia, filosofia klaseetan "Gaueko eztabaidak" material gisa erabiltzea.